



ELDn aparteko neurriak kirol-sektoreari aplikatzea

Gobernuak azken egunotan zenbait Errege Dekretu onartu ditu COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz ezohiko neurriak hartzeko. Neurri horietako askok eragin zuzena dute kirolean.

Martxoaren 12ko ELDn hauek jaso dira:

1. Egoera zaurgarrian egon eta hezkuntza zentroak ixteak erasan dien **haurren elikatzeko oinarritzko eskubidea. (8. artikulua)**

▪ Kirol munduarekin lotura izan eta egoera hori bizi duten familia guztiek izango dute laguntza ekonomikoa jasotzeko edo zuzenean elikagaiak jasotzeko eskubidea.

2. Zerga-zorra atzeratu. (14. artikulua)

▪ Kirol arloko enpresariak eta langileak, egungo egoeraren ondorioz behar izanez gero, zerga-zorren ordainketa atzeratzeko eska dezakete, aitorten-likidazioei eta autolikidazioei dagokien zor hori aurkeztu eta ordaintzeko epea Errege Lege Dekretu hau indarrean jartzen denetik 2020ko maiatzaren 30era amaitzen bada.

Alarma egoera aitortzen duen **martxoaren 14ko 463/2020 ED**:

1. Administrazio epeak geldiarazi. (3. XG)

▪ Denborak geldiarazi dira eta sektore publikoko erakundeen prozedurak izapidetzeko epeak eten dira. Baita kirolari dagozkionak ere. Errege dekretu honek, edo dagokionean honen luzapenek, indarraldia amaitzen dutenean hasiko dira berriro ere epeak kontaktzen.

▪ 39/2015 Legean definitutako sektore publiko guztiari ezar dakioke.

▪ Hori horrela izan arren, prozedurako interesatuaren eskubide eta interesetan kalte larriak saihesteko behar-beharrezko ordenazio neurriak eta jarraibideak erabaki ditzake eskudun-organoak, ebazpen ziodun bidez, betiere interesatuak ados dagoela adieraziz gero, edo interesatuak adierazten badu epea ez eteteko erabakiarekin ados dagoela.

▪ Ez du eraginik izango lehenengo atalean aipatutako prozeduretan eta ebazpenetan, hauek lotura estua badute alarma egoera justifikatu duten egoerekin.

Martxoaren 18ko ELDn hauek jaso dira:

1. Malgutasuna enpresen aldi baterako doikuntzarako, enplegua mantentzen lagundu ahal izateko eta zuzeneko eragina jasaten duten **langileen babesa** areagotzeko. **(Aitzinsolasa)**

- Egungo egoerak erasandako kirol arloko enpresek doitzeak egiteko neurriak hartu ahal izango dituzte, enplegua sustatu eta langileak babesteko.

2. Hipoteka zorraren luzamendua, ohiko etxebizitza erosteko. (7. artikulutik 16.era)

- Kirol munduarekin zerikusia duten langileek ere luzamendu hau eska dezakete eta ondorio hauek ditu:
 - COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz ohiko etxebizitzaren hipoteka ordaintzeko ezohiko zailtasunak dituztenek hipoteka-zergaren luzamendua lortzeko neurriak ezarri dira.
 - Higiezinaren hipotekarekin bermatutako kredituei edo maileguen kontratuei ezarriko zaie, zorduna zaurgarritasun ekonomikoaren kasuetan baldin badago (9. art.). Neurri hauek ezarriko zaizkie, halaber, zordun nagusiaren fidatzaile eta abal-emaile nagusiei, beraien ohiko etxebizitzari dagokienez.
 - Errege lege-dekretu honen ezarpen eremuko zordunek hartzekodunari eska dakieke, erre lege-dekretu honen indarraldia amaitu eta gehienez hamabost eguneko epean, ohiko etxebizitza erosteko hipoteka-maileguaren ordainketa luzatzeko.
 - Luzapena eskatzeak esan nahiko du hipoteka zorra eten egingo dela luzapenari dagokion epean eta ondorioz, luzapena indarrean den bitartean ez dela ezarriko hipoteka maileguaren kontratuan ageri den muga-egun aurreratua klausula.
 - Luzapenaren indarraldian entitate hartzekodunak ezingo du eskatu hipoteka kuota ordaintzeko, ezta horren barruan sartzen den kontzeptuak ordaintzeko ere (kapitalaren amortizazioa edo interesen ordainketa), ez osorik ez portzentaje batean. Interesik ere ez da sortuko.

3. COVID-19aren ondoriozko osasun krisiaren kudeaketarako alarma egoera adierazpenak erasamentzako ezohiko prestazioa jardunari uzteagatik. (17. artikulua)

- Horretarako eskubidea izango dute kirol munduko norbere konturako langileek edo autonomoek, haien jarduerak eten badira edo laguntza eskatu aurreko hilabeteko fakturazioa aurreko sei hilabeteko batez besteko fakturazioarekin alderatuz gero gutxienez % 75 murriztu bada. Ezohikoa izango da eta hilabeteko indarraldia izango du.

4. Produktuak itzultzeko epea eten, alarma egoera indarrean den artean. (21. artikulua)

- Kirol arloko produktuei erasaten die, nahiz presentziai nahiz on linekoei.

5. Ezohiko neurriak kontratuak eteteko eta lanaldia murrizteko prozeduretan,



ezinbesteko kasuagatik. (22. artikulua) Aldi baterako lan erregulazio espedientea

▪ Kirol arloko enpresek jendea joaten den lokalak aldi baterako itxi beharra badute edo jarduera galdu badute. Ezinbesteko kasuagatik izan dela ulertuko da, Langileen Estatutua onartzen duen Legeko testu bateginaren 47. artikulua onorioekin.

6. COVID-19arekin zerikusia duten ezinbesteko kasuagatik kontratuak eteteko eta lanaldia murrizteko prozeduren kotizazio arloko ezohiko neurriak. (24. artikulua)

▪ Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak salbuetsi egingo ditu kirol enpresak urriaren 30eko 8/2015 Errege Lege-dekretuak onartutako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategineko 273.2 artikuluan aurreikusitako enpresen ekarpena ordaintzetik, baita bilketa bateratuko kontzeptuengatik kuotak ordaintzetik ere, kontratuak etenda dirauten bitartean edo lanaldi murriztuan dauden bitartean, 2020ko otsailaren 29an Gizarte Segurantzaren 50 langile baino gutxiago bazituzten altan. 50 langile edo gehiago izanez gero Gizarte Segurantzaren altan, kotizatze betebehar salbuespena enpresa-ekarpenaren % 75ekoa izango da.

▪ Salbuespen horrek ez du eraginik izango kirol arloko langileengan, aldi hori ondorio guztietarako kotizatuta hartuko da, eta ez da ezarriko Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorreko 20. artikuluan esandakoa.

7. Ezohiko neurriak langabeziaren ondorioetatik babesteko, 22 eta 23 artikuluetan aipatutako prozedurak erabiliz. (25. artikulua)

▪ Aldi baterako lan erregulazio espedientea dutenei eskubide batzuk ezartzea esan nahi du.

▪ Langabeziagatik ordaindutakoaren arabera prestazioa izateko eskubidea aitortu erasandako langileei, nahiz eta beharrezko gutxienezko kotizazio aldirik ez izan.

▪ Aipatutako ezohiko gorabeheren ondorioz ordaindutakoaren arabera prestazioa jasoko den denbora ez izan kontuan, prestazio horiek jasotzeko ezarritako dauden gehieneko aldien iraupena agortu ez dadin.

8. Enpresa erakunde enpresei eta autonomiei emandako finantzazioa estaltzeko Lerro bat onartu Estatuaren kontu. (29. artikulua)

▪ Kirol arloko enpresei eta autonomiei finantzaziorako abalak emango dizkiete kreditu erakundeek, kredituaren finantza erakundeek, diru elektronikoaren erakundeek eta ordainketa erakundeek besteak beste fakturen ondoriozko beharrak estaltzeko, zirkulatu beharrak estaltzeko, finantza edo zerga betebehar epemugagatik edo beste likidez arloko beharrak estaltzeko.

9. ICOren zorpetze garbiaren muga handitu, enpresak eta autonomoak

finantzatze ICO Lineak hazteko. (30. artikulua)

- 10.000 milioi eurotan handitu da. Kirol arloko enpresei likidezia gehigarria erraztea da xedea, batez ere enpresa txiki eta ertainei eta autonomoei.

10. Aseguru-estalduraren ezohiko linea (31. artikulua)

- 2.000 milioi euro artekoa, Nazioartekotzearen Arriskuaren Erreserba Funtzaren kargu. Kirol munduko enpresa guztiak izan daitezke onuradunak.

11. Zerga arloko epeak eten. (33. artikulua)

- Zerga zorra ordaintzeko epeak, epeen muga-egunak eta emandako gerorapenen eta zatikapenen akordioen zatiak. Era berean, premiamenduzko administrazio prozeduraren barruan ez dira ondasun higiezin gaineko bermeak exekutatu 2020ko apirilaren 30era arte.

12. COVID-19aren ondorioak arintzeko kontratazio publiko arloko neurriak (34. artikulua)

- Prestazio jarraituko zerbitzuen eta hornigaien kontratu publikoei ezer dakieke, horiek burutzea ezinezkoa bada egungo egoeraren ondorioz. Automatikoki etenda geratuko dira prestazioa egin zen den egoera hasi zenetik eta prestazioa berriro hasi daitekeenean jarriko dira abian.

13. Zuzenbide pribatuko pertsona juridikoei ezartzeko ezohiko neurriak. (40. artikulua)

- Bideokonferentzia bidez egin ahal izango dira elkarten, elkarte zibilen eta merkataritzakoen, kooperatiben kontseilu errektorearen eta kirol arloko fundazioen patronatuen gobernu organoetako eta administrazioetako saiokak. Arau hau bera ezarri ahal izango zaie batzorde ordezkariari eta eraturako nahitaezko edo borondatezko gainerako batzordeei.
- Gainera, erabakiak idatzizko boto bidez hartu ahal izango dira eta saiorik gabe, presidenteak hala erabakitzen badu eta hala hartuko dira, organoko bi kidek gutxienez hala eskatuz gero. Arau hau bera ezarri ahal izango zaie batzorde ordezkariari eta eraturako nahitaezko edo borondatezko gainerako batzordeei.
- Gobernuko edo administrazioeko organoak urteko kontuak egiteko ekitaldi soziala (abendua 31) ixteko dagoen 3 hilabeteko epea, eta eska daitezkeen gainerako agiriak egitekoa, eten egingo da alarma egoera indarrean den bitartean eta berriro ere beste 3 hilabeteko epea hasiko da egoera hori amaitzen denean.

- Zergapeko pertsona juridiko baten gobernu edo administrazio organoak alarma egoera



indarrean jarri zenerako aurreko ekitaldiko kontuak formulatuta izanez gero, kontu horien kontabilitate arloko egiaztapena egiteko epea bi hilabete luzatuko da egoera alarma amaitzen denetik zenbatzen hasita, auditoria nahitaezkoa izanez gero.

- Aurreko ekitaldiko kontuak onartzeko ohiko batzar orokorra nahitaez bilduko da urteko kontuak formulatzeko epea amaitzen denetik hiru hilabeteko epean.
- Batzar orokorrerako deialdia alarma egoera abian jarri aurretik egin bazen, baina batzarraren data egoera abian jarri ondorengoa balitz, administrazio organoak batzarra egiteko aurreikusitako tokia eta ordua aldatu egin ahal izango ditu edo deialdia egiteko akordioa atzera bota, elkartearen webgunean gutxienez 48 ordu lehenago argitaratutako iragarki bidez, eta elkarteak webgunetik ez balu, BOEn argitaratutako iragarki bidez. Deialdiaren akordioa atzera botaz gero, administrazio organoak deialdi berria egin beharko du alarma egoera amaitu ondorengo hilabetean.